




SOLASKIDEEN ARTEKO bilera

Bergaran, 2023ko urriaren 24an



Antolatzaileak:

Bergarako Udala
Miguel Altuna
Emun

Solasaldiko hizlariak:

Asier Martin, Belmek
Jon Ander Loidi, Fagor Ederlan
Oihana Irusta, Erreka

Deituak:

HARIXAko solaskideak



ZERGATIK PARTE HARTZEN DUZUE HARIXAN?

- Herriarekin eta inguruarekin konpromisoa dugulako. Horrelakoetan saiatzen gara parte hartzen ekarpena egin dezakegula uste dugulako. Baita ikasteko ere.
- Enpresaren balioekin bat egiten du HARIXAk. Euskara ere balio garrantzitsua da gurean.
- Balioez harago... ez gara inor bakarrik bagaude. Enpresa batek egiteak balioa dauka baina lan munduan euskara ezinbestekoa ez denez, elkartu beharra daukagu. Komunitatea handitu beharra daukagu, zabaltzea ezinbestekoa da. Gu ere ikastera gatoz.

ERABAKIA NON HARTU DA?

- Euskara Batzordean.
- Bergarako plantan, batzordean.
- Enpresan aurrez aurre komentatu genuen. Euskaraldian ere parte hartu izan dugu. Zorionez guk asko egiten dugu euskaraz, hornitzaileekin, bezeroekin...

ERRONKAK

ZEIN ERRONKA DAUZKAZUE GAUR EGUN?

- Bikain ziurtagiria, alde batetik, baina erronka handi bat euskararen erabilera da. Bulegoetan ari gara hori sustatzen.
- HARROBI (diploma) lortzeko harremanetan ari gara Jaurlearitzarekin. Bikainen sartzeko denborarekin larri ibiltzen gara, lana eskatzen du.
- Ziurtagiri eta halakoek baliabide asko eskatzen dituzte. Aukeran hobe beste aukera batzuk lantzea.

EPE LABURREKO KEZKAK ETA ZAILTASUNAK?

- Erabilerarekin arduratuta. Enpresetan neurriak hartzea garrantzitsua izaten da eta zuzendaritzak hori egin dezake baina beste erabaki batzuk norbanakoarenak dira. Euskaldunek leialtasuna nola mantenduko dugu?
 - Euskara ikasten ahalegina egin eta ondoko lankide euskaldunek gaztelaniaz egin
 - Erdaldun bakar batek erabat baldintza dezake dena, egoera irauli egin daiteke
 - Euskara ikasi baino euskara ulertu. Helburuak zatikatu behar dira.
- ULERSAIOEN esperientzia gertutik jarraitu, zer emaitza ematen duen ikusi





GARRANTZITSUAK AL DIRA?

- Hizkuntza Politika daukagu zehaztuta eta bertan dago zehaztuta hainbat irizpide. Politika hori 2013koa da baina garaiak aldatu egiten dira eta adibidez ez dago jasota sare sozialetan nola jardun. Garrantzitsua da irizpideak jasota izatea langile berriek ere ikusteko zein den enpresaren egiteko modua, erakundearen erabakia da eta ez geratzea norbanakoaren gain.
- Irizpiderik ez baina praktikan egin egiten dugu.
- Irizpideek daukaten gauza garrantzitsu bat: ezin gara ohituren menpe egon. Araituta egon behar da eta guztiek bete behar dituzte.

ANTOLAKETA

GARRANTZITSUA AL DA ANTOLATUTA EGOTEA?



- Antolatuta egotea garrantzitsua da. Euskara Batzordeak lehen pausuak egin zituen eta hortik eratu zen Euskara Plana. Erakundea hasi da bere gain hartzen gaia, irizpideak bermatzen, zaintzen... Arauak indarra hartzean zuzendaritzak hartzen du indarra eta arlo sozialean apaltzen doaz gauzak. Gurean ere halako zerbait gertatu da. Orain konturatu gara giroa “epeldu” egin dela. Profesionalizatu egin gara... OREKA bat behar da bien artekoa.
- Euskararen aurpegia izatea ez da oso eroso. Alderantzizko bidea egiten ere ikusi dut jendea
- Irizpideek daukaten gauza garrantzitsu bat: ezin gara ohituren menpe egon. Araituta egon behar da eta guztiek bete behar dituzte.

HARIXAREN ONURAK



- Konpromisoa hartu genuen eta akuilua izaten da... Jarraipen bat egitea ondo dago. Badakigu hala ere ziklikoa izango dela
- Konpromisoa hartzeak dakar gauzak egitea. Horretan laguntzen du. Nominak euskaratzea ez da urrats handia baina HARIXAri esker egin da bestela ez genuen egingo
- Askotan helburu oso handiak jartzeak zaildu egiten ditu gauzak. Ideiak ematea lagungarria da. Sinadura euskaraz jartzea ere izan daiteke hurrengo egiteko bat.
- Kontratazioetan zailtasunak euskaldunak topatzeko. Hala ere, jarrera zer nolakoa den aldea egoten da.
- Zerbitzua ematean irizpideak garbi izatea garrantzitsua da: jendeari arreta egiterakoan nola, dokumentazioa nola dagoen, errotulazioa...
- Benetako erronka ahozko ERABILERA da. Egunerokoan ez da euskara erabiltzen. Bilerak euskaraz hasi eta gaztelaniaz bukatu, gai serioetan gaztelaniaz... Laguntza behar ohitura hori aldatzeko.
- Beharra behetik gora ikustea lortu behar... Epe luzera gehiago errotuko litzatekeelakoan.
- Ez da berezkoa 100 laguneko klaustroa euskaraz izatea. Eskualde honek ere aukera hori ematen du. Bailara hau euskal hiztunen aldetik sendoa da. Eskaera egitea akuilu bat da.
- Ikasleen artean euskara sustatzeko motibazio instrumentala sustatu behar ikus dezaten euskara behar dutela hemen lan egiteko, bizitzeko...

WEBGUNEAK

HARIXA webguneak gizarteari HARIXA egitasmoaren berri emateko helburua izateaz gain, lan arloan euskara sustatzeko baliabideak, tresnak, esperientziak ere biltzen ditu.

<https://harixa.eus/>

Martxan da dagoeneko!





Elay: Kontuen auditoretza euskaraz

Euskararen normalizazioan prozesu luzea egindakoak dira. Orain ere lorpen honekin urrats aitzindaria egin dute.

Kontuak euskara hutsean egin eta erregistratzea zen falta zitzaien urratsa eta oraingoan lortu dute. Aholkularitza-enpresaren laguntza izan dute.

Hemen [Berriako](#) artikulua

Elay enpresak praktika hau aurkeztuko du Bilboko Euskalduna Jauregian izango den [Praktika onen topaketan](#), azaroaren 9an.

Streaming bidez jarraitzeko eman izena [hemen](#)


[PRAKTIKEN BILATZAILEA](#)

GOGO BETETZEA

Saioaren balorazioa: 8

Jaso al duzu zure enpresarako baliagarria den zerbait?

8 erantzun



ZER JASO DUZU SAIOTIK

- Idea txiki batzuk martxan ipin daitezkeela
- "Ulermen-formakuntza"ren inguruko informaziñua. Baliagarria langile berriak topatzerakoan dagoen arazoa dela eta.
- Ekintza hau ere talde lanean eginez gero indartsuagoa izango dela
- Euskara aitzaki, ez da soberan egongo herriko industria txiki, zerbitzu eta udalak bat egiteko ohiturari jarraipena ematea.
- Beste enpresek dituzten beharrak gureak antzekoak diren sentrazioa
- Erronka handiena erabilera dela

HOBETZEKOAK

- Hilaren 25ean ordainketa eguna denez, ez da izaten garairik aproposena
- Enpresa txikien esperientzia gehiago
- Parte hartze txikia, talde txikiagoetan hobeto
- Enpresetako euskararekiko jarrera ezkorren jatorria gizartean dagoela baieztatzea, horrek suposatzen duen zailtasunarekin buelta emateko
- HARIXAko kideen artean harremana bultzatzeko harremanetarako kontaktuak eskura izatea, posta elektronikoa, adibidez

ZEIN EKINTZA NAHIKO ZENUKE MARTXAN JARRI 2024AN

- Barne erabilera lortzeko erremintak
- Sinaduran, zerbait euskeratzea....Euskerako ekintza guztiak dokumentatzea
- Nominak euskeratzea eta euskara plan bat idaztea
- Erabilera bultzatzeko ekintzaren bat
- Egun hauetan bildu behar gara, era erabakiko dugu. Oraindik zehazteko daukagu
- Euskaraz hitzegiteko guneak sortu edo handitzen lagunduko dizkiguten dinamikak

BAGOAZ!



HARIKA
BERGARAN
LANEAN
EUSKARAZ